

MEATZARITZA ETA BESTE BALIABIDE GEOLOGIKO BATZUK MINERÍA Y OTROS RECURSOS GEOLÓGICOS

Bizkaia

Sopuerta

Alen

ALÉN BARRUTIA. SAN PEDRO ETA SAN JOSE MEATEGIAK COTO MINERO DE ALÉN. MINAS SAN PEDRO Y SAN JOSÉ



San Pedro eta San Jose meatzeak Alen barrutiko konzesioen gainean daude, Sopuertan, egun iraungita badaude ere. Jose Luis eta Segundo Etxebarria Olabarrietak erregistratu zituzten 1953an, eta meategiak ustiatzeko epea 1973an bukatu zen.

Meategi hauen aztarna materialen artean, nabarmentzekoa da mineral-garbitzea, San Pedro eta San Jose meategietatik erauzitako materiala garbitzeko 1960ko hamarkadan eraikia. Ibarbide natural bat aprobetxatuz egin zuten, hiru solairutan banatuta. Goiko aldean horma zuzenak eta konbergenteak dituen tobera bat dauka, kuxin modura landutako harlanduekin egina. Aurrealdean deskarga-aho bat ageri da, angeluzuzena eta eskuz irekitzen den albate metaliko batekin. Deskarga-ahotik materiala danbor birakariaren atzeko ahora joaten da, danbor birakaria elikatuz. Garbitegiaren erdian danbor birakaria dago; behealdean, berriz, kamioiak kargatzeko hobi bat ikus daiteke. Hobi hori hormigoiz egina da, eta barruan zortzi deskarga-aho dauzka. Horiez gain, garbitegiak ur-biltegi bat dauka –kota garaia go batean–, horma zuzenekin eta harlangaitzez egina.

Meatze gune guztietan gertatzen den bezala, paisaia asko aldatu da eta gaur egun ikusten duguna ez da ustiapena hasi zenean zegoenaren berdina. Paisaia hau batez ere azken hamarkadatan egindako lanen ondorio da, kamioien erabilerarekin pisten egoera oraindik gehiago hondatu baitzuten. Hala ere, garbitegiak gain, oraindik minerala erauzteko egindako terrazak azarnak eta hondakindegia erraldoiak ere gelditzen dira.

Las minas San Pedro y San José se localizan sobre concesiones mineras ya caducadas del coto minero de Alén, en Sopuerta, y fueron registradas por José Luis y Segundo Echevarria Olavarrieta en 1953, caducando la explotación minera en 1973.

De entre los restos materiales que han quedado de estas minas destaca el lavadero de mineral, construido en los 60 para el lavado del material extraído de las minas San Pedro y San José. Fue realizado aprovechando una vertiente del terreno y distribuido en tres alturas. En la zona superior se localiza la tolva, de paredes rectas convergentes, y realizada en sillar almohadillado. Presenta en su frente una boca de descarga, rectangular y con una compuerta metálica de abertura manual, que comunica con la boca trasera del trómel, alimentándolo. En la zona media del lavadero se localiza el trómel, mientras que en la zona inferior existe un nicho de carga para los camiones. Este nicho está realizado en hormigón y posee en su interior ocho bocas de descarga. Además, el lavadero cuenta, en un nivel superior, con un depósito de agua, de paredes rectas, realizado en mampostería.

Como ocurre en todas las zonas mineras, el paisaje actual está muy alterado y no se corresponde con el que existía a comienzos de la explotación. Este paisaje es producto sobre todo de los trabajos llevados a cabo en las últimas décadas que con la utilización de camiones alteraron aún más la disposición de las pistas. Sin embargo, todavía quedan, además del lavadero, los restos de las terrazas en las que se organizaban para la extracción del mineral así como las gigantescas escombreras.